



aztiker
SOZIOLOGIA IKERGUNEA



Errenteriako Udala

ERRENTERIAKO HERRITARREN IRITZIAK UDALAREN ETA BERE PROIEKTUEN INGURUAN

IKERKETA KUANTITATIBOA

AURKIBIDEA

1. SARRERA	2
2. METODOLOGIA OHARRAK.....	3
3. EMAITZAK	4
3.1. ALDAGAI SOZIODEMOGRAFIKOAK	4
3.2. ERRENTERIAKO ASEBETETZEA ETA HERRITARREN ARAZO NAGUSIAK	8
3.2.1. ERRENTERIAKO ASEBETETZE MAILA, BIZITZEKO UDALERRI MODUAN	9
3.2.2. GEHIEN BALORATZEN DEN ERRENTERIAREN ASPEKTUA.....	10
3.2.3. ERRENTERIAKO ARAZO NAGUSIA ZEIN DEN	11
3.3. UDAL GOBERNUA ETA BERE KUDEAKETAREN BALORAZIOA.....	12
3.3.1. UDAL GOBERNUAREN ETA OPOSIZIOAREN INGURUKO IRITZIAK	14
3.3.2. UDAL GOBERNUA HAINBAT GAIETAN NOLAKO KUDEAKETA EGITEN ARI DEN	15
3.3.3. UDAL GOBERNUAREN EZAUGARRI BATZUEN BALORAZIOA	16
3.3.4. ORDEZKARI POLITIKOEN EZAGUTZA ETA BALORAZIOA.....	17
3.3.5. UDAL GOBERNUAREN INGURUKO BALORAZIO OROKORRA	18
3.4. ERRENTERIAKO UDALAREN ETORKIZUNEKO BALIZKO PROIEKTUAK.....	19
3.4.1. UDALAK AURRERA ERA MAN DITZAKEEN PROIEKTU EZBERDINEN GARRANTZIA MAILA	21
3.4.2. UDALAREN LEHENTASUNEZKO EREMUAK ETORKIZUNEAN	24
3.5. KORONABIRUSA ETA KONFINAMENTUAREN INGURUKO BIZIPENAK.....	25
3.5.1. KONFINAMENTU GARAIAN IZANDAKO EGOERA	27
3.5.2. KORONABIRUSA DELA ETA, UDALAK HARTUTAKO NEURRIEN EZAGUTZA ETA PROPOSAMENAK	29
3.5.3. UDALAK HARTUTAKO NEURRIETAN IZANDAKO HERRITARREN PARTE HARTZEA ETA ERABILERA	33
3.6. AMAIERAKO OHARRAK.....	35

1. SARRERA

Jarraian datorrena Erreenteriako Udalaren enkarguz egindako ikerketaren emaitza da. Ikerketa hau 2020ko azaroaren 16 eta abenduaren 2 bitartean egindako inuesta baten bidez garatu da. Galdetegia Erreenteriako Udaleko ordezkariekin adostua izan da.

Aurkezten den txostenak honako egiturari jarraitzen dio:

- Hasteko, ikerketa egiteko erabili den metodologia azaltzen da.
- Ondoren, inkestaren edukietan edota ikerketaren emaitzetan sartzen gara:
 - Inkestatutako herritarren **aldagai soziodemografikoak** aurkezten dira.
 - **Egoera orokorraren inguruan** egiten duten balorazioa jasotzen da: udalerriarekiko dagoen asebetetze maila, udalerriaz gehien baloratzen diren aspektuak zein diren eta Erreenterian identifikatzen diren arazo nagusiak zein diren.
 - **Udal gobernuaren inguruko hainbat aldagai** aztertzen dira ondoren: Udal gobernuaren eta oposizioaren inguruko iritzia, gai konkretu batzuen inguruan Udal gobernuaren kudeaketa nolako den, Udal gobernuaren hainbat ezaugarriren inguruko balorazioa eta bere balorazio orokorra, eta udal ordezkari batzuen ezagutza eta balorazioa.
 - Laugarren lekuan, **Erreenteriako Udalak mahai gainean dituen zenbait proiektuk** herritarren ustez duten **garrantzia maila eta lehentasuna** aztertzen da.
 - Amaitzeko, martxoa eta maiatza bitartean bizitutako **konfinamenduaren inguruan** galdu da: **herritarrek nola bizi izan zuten** konfinamentua eta **Udalak hartutako neurrien inguruko ezagutza maila eta erabilera** zein izan den.

2. METODOLOGIA OHARRAK

ERABILITAKO TEKNIKA: Erreenteriako herritarrei egindako inuesta egituratua.

UNIBERTSOA: Erreenterian bizi diren 18 urtetik gorako herritarrak. Garai honetan, zehazki, adin horretako **32.776** lagun zeuden erroldatuta.

LAGINA: **614** herritar.

LAGINKETA: Lagina unibertsoaren argazki ahalik eta fidelena izan zedin, adina eta sexuaren araberako kuotak erabili dira.

GALDERA-SORTAK: Aztertu nahi ziren gaien inguruko galderetako osatu dugu galdera-sorta, Udaleko ordezkariekin elkarlanean. Elkarritzeta batzuk euskaraz (%25,6) eta beste batzuk gaztelaniaz (%74,4) egin direnez, bi galdera-sorta izan ditugu, hizkuntza bakoitzean bana.

LANDA-LANA: Inkestak 2020ko azaroaren 16 eta abenduaren 2 bitartean egin dira. Oro har, herritarren erantzuna oso ona izan da eta aurrerago horrelako inkestaren bat erantzuteko prest .

AKATS TARTEA: **±%4,0** lagin osoarentzat, **%95,5eko konfiantza mailan** eta $p=q =%50,0$ denerako.

Inuesta egiteko erabili den metodologia multikanala izan da. Gizarte osatzen duten perfil desberdinak talde bakoitzak ezaugarri jakin batzuk ditu eta, horren arabera, berengana iristeko metodologia egokienak ere aldatu egiten dira.

Hala, ikerketa honetako inuesta bi tekniken bidez egin da:

- **Inuesta telefonikoak** egin dira, bereziki 45 urtetik gorako herritarrei begira.
- **Etxez etxeeko inkestak** ere egin dira, CAWI teknika erabiliz, 45 urtetik beherako herritarrei begira batez ere.

Guztira, 614 inuesta egin dira adierazitako daten artean. Ondoren, inuesta horiek sexua eta adinaren arabera hartzatu dira.

DATU TEKNIKOAK (LABURPENA):

Unibertsoa: 18 urtetik gorako Erreenteriako herritarrak (**32.776**)

Lagina: **614** herritar.

Landa-lana: 2020ko azaroaren 16 eta abenduaren 2 bitartean. Inkestak euskaraz (%25,6) zein gaztelaniaz (%74,4) egin dira, inkestatuaren nahiaren arabera.

Akats tarteak: **±%4,0** lagin osoarentzat, %95,5eko konfiantza mailan eta $p=q =%50,0$ denerako.

3. EMAITZAK

3.1. ALDAGAI SOZIODEMOGRAFIKOAK

Inkestatuen artean, emakumezkoek pisu zertxobait handiagoa dute gizonek baino (%52 eta %48 hurrenez hurren). Adinari dagokionez, inkestatuen erdiek 50 urte edo gehiago dituzte (%52,4) eta beste erdiek 18 eta 49 urte artean (%47,6)¹.

Bizilekuari dagokionez, bost zonaldetan banatu da Erreenteria eta hauxe izan da inkestatuen banaketa: Erdigunea-Olibet-Etxe Berriak inguruan bizi da inkestatuen %31,9; Gabirrota-Fanderia-Lartzabal-Alaberga-Agustinak zonaldean %20,4; Beraun-Kaputxinoetan %18,9; Galtzaraborda-Iztietan %18,7 eta Pontika-Gaztaño-Zamalbiden bizi da %10,1.

Lan egoerari dagokionez, galdekatutako herritarren ia erdia (%47,2) lanean ari da, izan jardun osoan edo murriztuan. Herritarren hamarretik bat (%10,3) langabeziaren dago eta beste %3,1 etxeko langilea da, lan ordaindurik ez duena. Bukatzeko, inkestatuen herena (%32,1) jubilatu edo pentsionista da eta gainerako %5,3 ikaslea.

Euskara gaitasunari dagokionez, inkestatuen herena baino gehixeagok (%36,8) euskaraz ondo ulertu eta hitz egiten du. Beste %33,4k ulertu bai baina ez du ondo hitz egiten, eta gainerako %29,8k euskaraz ez du ulertu ere egiten. Euskara gaitasuna hori izanda ere, inkestatuen laurdenak bete du euskaraz galdetegia.


Azkenik, inkestatua zein familia edo etxe motan bizi den galdetuta, galdetegia erantzun duten herritarren ia erdia (%45,4) bikotea eta seme-alabek osatzen duten etxebizitzan bizi da. Beste %29,6 seme-alabarik gabeko bikotea dira, bai seme-alabarik ez dutelako edo jada etxeen bizi ez direlako. Bestetik, inkestatuen hamarretik bat baino gehixeago (%12,2) bakarrik bizi da, %8,4 guraso bakarra seme-alabekin, %3,4 familia mota zabala deitzen zaionean (gurasoez gain, familiakide gehiago bizi direnak) eta, bukatzeko, inkestatuen etxeen %1,1 familia ez diren kideek osatzen dituzte.

¹ Kontuan hartu behar da aldagai horiek haztatuak daudela; beraz, Erreenteriako errealitatearekin guztiz bat egiteko egokitua izan dira.

Inkestatuaren sexua


	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Emakumezkoak	319	52,0
Gizonezkoak	295	48,0
Guztira	614	100,0

Iturria: Aztiker, Erreenteriako herritarren iritziak Udalaren eta bere proiektuen inguruan, 2020.

**Inkestatuuen adin-tartea**


	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
18-34 urte artean	107	17,4
35-49 urte artean	185	30,1
50-64 urte artean	148	24,0
65 urtetik gora	175	28,4
Guztira	614	100,0

Iturria: Aztiker, Erreenteriako herritarren iritziak Udalaren eta bere proiektuen inguruan, 2020.

**Inkestatua bizi den zonaldea**

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Beraun-Kaputxinoak	115	18,9
Galtzaraborda-Iztietza	114	18,7
Gabierrota-Fanderia-Lartzabal-Alaberga-Agustinak	124	20,4
Erdigunea-Olibet-Etxe Berriak	194	31,9
Pontika-Gaztañoz-Zamalbide	62	10,1
Guztira	609	100,0


Iturria: Aztiker, Erreenteriako herritarren iritziak Udalaren eta bere proiektuen inguruan, 2020.



Inkestatuen lan egoera


	Maiztasuna	Ehuneko (%)
Lan ordainduan (jardun osoan)	207	33,6
Lan ordainduan (jardun murriztuan)	45	7,3
Autonomoa edo bere kontura	26	4,3
Langabezian	63	10,3
Etxeko langilea	19	3,1
Ikaslea	32	5,3
Ikasi + lana	12	2,0
Jubilatu / pensionista	197	32,1
Beste bat	13	2,0
Guztira	614	100,0

Iturria: Aztiker, Erreenteriako herritarren iritziak Udalaren eta bere proiektuen inguruan, 2020.

**Inkestatua bizi den etxebizitzaz mota**

	Maiztasuna	Ehuneko (%)
Kide bakarreko etxea	75	12,2
Guraso bakarra seme-alabekin (monoparental)	51	8,4
Bikotea seme alabarik gabe (ez dituzue edo ez dira etxeen bizi)	181	29,6
Bikotea seme alabekin (1 edo gehiago)	278	45,4
Familia zabala (familiakide gehiagorekin: osaba-izebak, aiton-aomonak...)	21	3,4
Familia ez diren kideak (lagunak...)	7	1,1
Guztira	612	100,0


Iturria: Aztiker, Erreenteriako herritarren iritziak Udalaren eta bere proiektuen inguruan, 2020.



Inkestatuaren euskara gaitasuna

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Ondo ulertu eta hitz egin	226	36,8
Ulertu bai, hitz egin nekez	205	33,4
Ez ulertu ez hitz egin	183	29,8
Guztira	614	100,0

Iturria: Aztiker, Erreenteriako herritarren iritziak Udalaren eta bere proiektuen inguruan, 2020.



3.2. ERRENTERIAREKIKO ASEBETETZEA ETA UDALERRIKO ARAZO NAGUSIAK

Oro har, Erreenteriako herriarekin duten asebetetze mailaz galdetuta, bizitzeko leku moduan, 8,1eko batez besteko asebetetzea adierazten dute erreenteriarrek (0tik 10erako eskalan). Batez besteko puntuazioa oso antzekoa da galdera hau sexuaren arabera eta bizilekuaren arabera gurutzatzen bada. Aldiz, adin-tartean arabera antzeman daiteke diferentzia txiki bat; herritar gazteenek adierazten dute asebetetze txikiena (7,8) eta zaharrenek handiena (8,3).

Erreenteriarrei beren udalerriko zein aspektu baloratzen duten gehien galdetuta, herriak duen komunikazio eta konexio sare ona aipatzen dute batez ere (%19,6). Hau da, inguruko herriekin eta batez ere Donostiarekin duten garraio bidezko lotura, garraio publikoaren maiztasuna, errepide bidezko konexioa. Herritar gazteenak dira aspektu hau gehien baloratzen dutenak. Bigarren puntu baloratuena, Erreenteriak duen biziota soziala eta giroa aipatzen da (%7,7) eta hirugarren aspektu positiboena bertan biziota lasaia egin daitekeela (%7,2). Aipamen kopuru berdinarekin, laugarren postuan, orokorrean Udalak dituen zerbitzu onak azpimarratu dira.


Inkestatuei Erreenteriako arazo nagusia zein den galdu zu zaien hurrena. Erreenteriako arazo nagusienan artean, gehien errepikatu dena 'delinkuentzia, lapurretak, segurtasun falta' izan da, herritarren %13,6k aipatu baitu. Kezka hau gehien adierazi dutenak 35 eta 49 urte arteko herritarrenak izan dira eta, zertxobait gutxiago, 50 eta 64 urte artekoak. Bigarren arazo nagusi bezala herrian dagoen aparkaleku falta aurkitzen da (%8,3). Kezka hau zertxobait altuagoa da gizonezkoen eta gazteen artean, eta baita Beraun-Kaputxino zonaldean bizi direnen artean ere. Hirugarren arazo aipatuena 'Udalerrria ez dago txukun (kaleak, bideak, parkeak...), mantenimentu falta, zikinka' izan da %6,2rekin. Azken arazo hau bereziki aipatua izan da 65 urtetik gorako herritarren artean.

3.2.1. ERREENTERIAKO ASEBETETZE MAILA, BIZITZEKO UDALERRI MODUAN

Esango zenidake zenbateraino gustatzen zaizun Erreenteria bizileku gisa? Otok 10erako eskalan

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Asebetetze altua (10-7)	553	90,4
Asebetetze ertaina (6-4)	55	8,9
Asebetetze baxua (3-0)	4	0,6
Guztira	611	100,0
Batezbestekoa (0-10)	8,1	

Iturria: Aztiker, Erreenteriako herritarren iritziak Udalaren eta bere proiektuen inguruan, 2020.



3.2.2. GEHIEN BALORATZEN DEN ERRENTERIAREN ASPEKTUA

Zein da edo dira Erreenteriaz gehien baloratzen dituzun aspektuak

	Maiztasuna	Ehunekoia (%)
Komunikazio ona: konexioa inguruko herriekin, Donostiarekin, Irunekekin, garraio publiko ona...	120	19,6
Giroa du, bizitza soziala	47	7,7
Lasaitasuna	45	7,2
Udal zerbitzu onak, orokorrean	44	7,2
Aktibitate kultural handia	32	5,2
Denetik dagoela herrian, dena eskura	32	5,2
Komertzio aukera zabala	26	4,2
Zonalde berdeak, inguru naturala gertu	26	4,2
Jendea, erreenteriarrak orokorrean	23	3,8
Herria garbi eta txukun dagoela, zainduta	18	3,0
Herri atsegina eta erosoa da orokorrean	14	2,3
Bidegorri, pasealeku eta parke asko dituela	12	1,9
Irisgarritasun ona, igogailuak...	11	1,8
Azken urteetan herriak izan duen bilakaera positiboa: hobekuntzak hirigintzan, erreka garbiago...	10	1,6
Bizikidetza, ezberdinaren artean egoteko aukera	9	1,5
Familia eta gertukoak bertan dituela	9	1,4
Zerbitzu eta laguntza sozialak onak	8	1,2
Herri solidarioa eta parte hartzailea dela	7	1,2
Segurtasuna dago	4	0,7
Kirol jarduera asko dago	3	0,5
Udalaren kudeaketa ona, herritarrei atentzio ona	3	0,5
Beste	27	4,4
Dena ona dauka	17	2,8
Ezer ere ez	12	2,0
Ez daki / Erantzunik ez	55	8,9
Guztira	614	100,0

Iturria: Aztiker, Erreenteriako herritarren iritziai Udalaren eta bere proiektuen inguruan, 2020.

Komunikazio ona: konexioa inguruko herriekin, Donostiarekin, Irunekekin, garraio publiko ona...

Giroa du, bizitza soziala

Lasaitasuna

Udal zerbitzu onak, orokorrean

Aktibitate kultural handia

Denetik dagoela herrian, dena eskura

Komertzio aukera zabala

Zonalde berdeak, inguru naturala gertu

Jendea, erreenteriarrak orokorrean

Herria garbi eta txukun dagoela, zainduta

Herri atsegina eta erosoa da orokorrean

Bidegorri, pasealeku eta parke asko dituela

Irisgarritasun ona, igogailuak...

Azken urteetan herriak izan duen bilakaera positiboa: hobekuntzak hirigintzan, erreka garbiago...

Bizikidetza, ezberdinaren artean egoteko aukera

Familia eta gertukoak bertan dituela

Zerbitzu eta laguntza sozialak onak

Herri solidarioa eta parte hartzailea dela

Segurtasuna dago

Kirol jarduera asko dago


Udalaren kudeaketa ona, herritarrei atentzio ona

Beste

Dena ona dauka

Ezer ere ez


Ez daki / Erantzunik ez



3.2.3. ERRENTERIAKO ARAZO NAGUSIA ZEIN DEN

Zure ustez, zein da Errenerteriak duen arazorik garrantzitsuena?

	Maiztasuna	Ehunekoia (%)
Delinkuentzia, lapurretak, segurtasun falta	84	13,6
Aparkaleku falta	51	8,3
Errenerteriak ez du arazo handirik	46	7,6
Udalerrria ez dago txukun (kaleak, bideak, parkeak...), mantenimentu falta, zikinka	38	6,2
Lana, lan baldintzak, langabezia	36	5,9
Koronabirusa	35	5,7
Etorkin gehiegi	21	3,3
Etxebizitza aukera falta	19	3,1
Trafiko handiegia, buelta handiegia eman beharra	19	3,0
Auzoen zaintza falta, auzo batzuk abandonatuta daude	15	2,4
Zaborrak, hondakinak edukiontzi kanpoan	11	1,8
Udaltzainen kontrol txikiegia: delinkuentzia gelditzeko, Covid19aren neurriak betearazteko...	11	1,8
Berdeguneen eta parkeen falta	9	1,5
Papeleraren usaia eta soinua	9	1,4
Ostalaritzaren egoera, tabernen itxierarekin	6	1,0
Egoera sozioekonomiko txarra	5	0,8
Masifikazioa, biztanle gehiegi dituela	5	0,7
Errenerteriak		0,7
Txakur kakak	4	0,7
Anbulatorioko atentzia kendu eta telefono bidezkoan bidezkoa jarri dela	3	0,4
Arratoiak	3	0,4
Kutsadura	2	0,3
Errekaren usain txarra	2	0,3
Eskaleak daudela kalean	2	0,3
Beste	53	8,6
ED / EE	127	20,7
Guztira	614	100,0



Iturria: Aztiker, Errenerteriako herritarren iritziak Udalaren eta bere projektuen inguruan, 2020.

3.3. UDAL GOBERNUA ETA BERE KUDEAKETAREN BALORAZIOA

Udal gobernuaren inguruko iritzia, oro har, oso positiboa da. %32,2k uste du "Erreenteriako arazoak konpontzen ari dela", eta beste %47,6k berriz "badakiela nola konpondu Erreenteriako arazoak, baina denbora gehiago behar duela. Bi aukerak batuta, ia hamar herritarretik zortzik iritzi positiboa du udalarekiko edo gutxienez konfiantza erakusten du honekiko. Herritar gazteenak dira, kasu honetan, Udal gobernuarekiko iritzi positiboa dutenak, lehenengo bi erantzun horien blokea %87,0ra iristen baita. 65 urtetik gorako herritarrek aldiz, nahiz eta kontrakotasun handirik ez erakutsi, zalantza gehiago egin dute erantzunean.

Oposizioaren kasuan, ostera, iritziak banatuago daude. Oposizioak "Erreenteriako arazoak konpontzeko proposamenak egiten laguntzen duela" irizten dutenak (%24,6) gehiago dira "Udal Gobernuari kritika eta oztopoak jartzen dizkiola" uste dutenak baino (%16,3). Hala ere, galdera honetan talderik handiena ezer erantzuten ez dutenek edo oposizioak ez lagundu ez oztopatu egiten ez duela esaten dutenek osatzen dute, bien artean %59,2. Galdera honen erantzunetan ez da herritar profil ezberdinaren artean diferentzia handirik ikusi.

Gai zehatz batzuen inguruan Udalak egiten duen kudeaketari erreparatuta, bereziki eremu batean egiten da balorazio positiboa; 'Udalera telefonoz edo modu presentzialean jotzen duzuenan jasotzen duzun arreta' da herritarrek ondoen baloratzen dutena, hamarretik zortzik baino gehiagok (%82,2) oso ondo edo nahiko ondo egiten dela baloratzen dute. Ondoren, 'Altzarien jasoketa eta hondakinen kudeaketa' da bigarren aspektu baloratuena. Herritarren hiru laurdenaren (%75,8) balorazio positiboa jasotzen dute. Koska bat beherago, bizi den auzoak jasotzen duen arreta aurkitzen da. Herritarren hamarretik zazpik oso ondo edo nahiko ondo baloratzen du, baina beste %24 inguruk balorazio txarra ematen dio. Balorazio positiboa Erdigunea-Olibet-Etxe Berriak zonaldean bizi direnek ematen diote eta negatiboa aldiz, Galtzaraborda-Iztietan bizi direnek.

Nahiz eta balorazio nahiko positiboa jaso, bi gairen inguruan herritarrek kritikotasuna edo ezjakintasuna adierazi dute. Batetik, Udalaren gizarte zerbitzuen inguruan herritarren erdiak baino gehiagok (%59,9) ona dela esan badu ere, inkestatuen hirutik batek (%34,6) ez daki zer erantzun. Izan daiteke zerbitzu horiek erabili ez izanagatik izatea erantzun hori. Bestetik, antzeko ehunekoekin, baina zertxobait negatiboago, herritarren %51,0k oso ondo edo nahiko ondo baloratzen du enplegu eta jarduera ekonomikoaren sustapena, %19,1ek gaizki edo oso gaizki eta gainerako %29,9 ez da posizionatu gaiaren inguruan. Bereziki balorazio negatiboa egin dute gai honen inguruan lan jardun murriztuan daudenek eta autonomoek.

Udal gobernuari zuzendutako atala amaitzeko, inkestatuei eskatu zaie udal gobernu baloratzeko hainbat ezaugarrien baitan: herritarren arazoekiko hurbiltasuna, gestiorako gaitasuna, zintzotasuna, akordioak lortzeko gaitasuna, lidergoa izateko gaitasuna eta herritarrei egiten zaien komunikazioa, 0 eta 10 bitarteko eskala batean.

Balorazio guztiak oso antzekoak izan dira; 6,9 eta 7,3ko puntuazioaren artekoak. Ondoan baloratzen diren aspektuak 'komunikazioa, Udalaren inguruko informazioa herritarrei helaraztea' eta 'zintzotasuna' dira, hurrenez hurren 7,3 eta 7,2ko batezbesteko puntuazioarekin. Eta ondoren dator, balorazio altuenetik baxuenera ordenatuta, 'lidergoa izateko gaitasuna' 'gestiorako gaitasuna', 'herritarren arazoekiko hurbiltasuna' eta 'akordioak lortzeko gaitasuna'. Orokorean, 18 eta 34 urte bitarteko erreenteriarrek eman dute puntuazio altuena kasu guztietan eta 35 eta 49 urte bitartekoek baxuena.

Bestetik, Udaleko bost zinegotziren inguruko ezagutza eta balorazioaz galdetu da inkestan. Gehien ezagutzen den ordezkaria Aizpea Otaegi alkatea da (%55,2) eta ondoren, ezagutza ehuneko altuarekin, Jon Collar zinegotzia (%33,8). Gainerako hiru zinegotziak, Itziar Ostolaza, Eli Murua eta Isaac Palencia, inkestatuen laurdenak baino gutxiagok ezagutzen dituzte (hurrenez hurren %22,0, %16,8 eta 16,1).

Balorazioetara pasaz gero, Aizpea Otaegi alkatea da batezbesteko altuena jasotzen duena, bai orokorrean eta baita perfil ezberdinetan herritarren artean ere (7,7ko nota batez beste). Jarraian dator Itziar Ostolaza (7,5), Jon Collar (7,0), Eli Murua (6,6) eta Isaac Palencia (5,2).


Bukatzeko, Udalaren balorazio orokorra egiteko eskatuz gero, legegintzaldi hasieratik honakoa, inkestatuen %70,6k 7 eta 10 bitarteko balorazioa ematen dio eta batezbesteko puntuazioa 7,1ekoa izan da. Ez da diferentzia handiegirik antzematen herritar talde ezberdinen artean batezbesteko puntuazio honetan.

3.3.1. UDAL GOBERNUAREN ETA OPOSIZIOAREN INGURUKO IRITZIAK

Ondoko esaldietatik zeinek azaltzen du hobeto Udalari buruz duzun iritzia?

	Maiztasuna	Ehuneko (%)
Erreenteriako arazoak konpontzen ari da	198	32,2
Badaki nola konpondu Erreenteriako arazoak, baina denbora gehiago behar du	292	47,6
Ez daki nola konpondu Erreenteriako arazoak	53	8,7
Herriko arazo nagusiak konpontzea udalaren eskumenetatik kanpo dago	12	2,0
ED / EE	59	9,6
Guztira	614	100,0


Iturria: Aztiker, Erreenteriako herritarren iritziak Udalaren eta bere proiektuen inguruan, 2020.



Eta ondoko esaldietatik zeinek azaltzen du hobeto oposizioari buruz duzun iritzia?

	Maiztasuna	Ehuneko (%)
Erreenteriako arazoak konpontzeko proposamenak egiten laguntzen du	151	24,6
Udal Gobernuari kritika eta oztopoa jartzen dizkio	100	16,3
Ez bat ez beste	173	28,1
ED / EE	191	31,0
Guztira	614	100,0

Iturria: Aztiker, Erreenteriako herritarren iritziak Udalaren eta bere proiektuen inguruan, 2020.




3.3.2. UDAL GOBERNUA HAINBAT GAIETAN NOLAKO KUDEAKETA EGITEN ARI DEN

Hainbat gaien kudeaketa

	Zure auzoak udaletik jasotzen duen arreta		Altzarien jasoketa eta hondakinen kudeaketa		Enplegu eta jarduera ekonomikoaren sustapena		Udalera telefonoz edo modu presentzialean jotzen duzun arreta		Gizarte Zerbitzuak	
	Maiztasuna	Ehunekoa (%)	Maiztasuna	Ehunekoa (%)	Maiztasuna	Ehunekoa (%)	Maiztasuna	Ehunekoa (%)	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Oso ona	61	10,0	136	22,1	38	6,2	210	34,1	142	23,1
Nahiko ona	379	61,8	330	53,7	275	44,8	295	48,0	226	36,8
Nahiko txarra	117	19,1	100	16,3	91	14,8	40	6,6	24	3,9
Oso txarra	29	4,8	33	5,3	26	4,3	5	,8	10	1,6
ED / EE	27	4,4	16	2,6	183	29,9	64	10,5	212	34,6
Guztira	614	100,0	614	100,0	614	100,0	614	100,0	614	100,0
Indizea (-100 / 100)		26,6		35,5		16,9		54,1		37,9

Iturria: Aztiker, Erreenteriako herritarren iritziak Udalaren eta bere proiektuen inguruan, 2020.




3.3.3. UDAL GOBERNUAREN EZAUGARRI BATZUEN BALORAZIOA

Udal gobernuaren ezaugarriak

	Herritarren arazoekiko hurbiltasuna		Gestiorako gaitasuna		Zintzotasuna		Akordioak lortzeko gaitasuna		Lidergoa izateko gaitasuna		Komunikazioa, Udalaren inguruko informazioa herritarrei helaraztea	
	Maiztasuna	Ehuneko (%)	Maiztasuna	Ehuneko (%)	Maiztasuna	Ehuneko (%)	Maiztasuna	Ehuneko (%)	Maiztasuna	Ehuneko (%)	Maiztasuna	Ehuneko (%)
Balorazio ona (10-7)	369	67,1	349	68,4	360	70,7	282	64,7	314	69,2	402	70,4
Erdipurdiko balorazioa (6-4)	165	29,9	149	29,3	132	26,0	133	30,5	127	28,0	155	27,2
Balorazio txarra (3-0)	17	3,0	12	2,3	17	3,3	21	4,8	13	2,8	14	2,5
Guztira	550	100,0	511	100,0	509	100,0	437	100,0	454	100,0	571	100,0
Batez bestekoa (0-10)		7,0		7,0		7,2		6,9		7,1		7,3

Iturria: Aztiker, Errenerteriako herritarren iritziak Udalaren eta bere proiektuen inguruan, 2020.




3.3.4. ORDEZKARI POLITIKOEN EZAGUTZA ETA BALORAZIOA

Udal ordezkarien ezagutza

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Aizpea Otaegi (EH Bildu)	341	55,5
Itziar Ostolaza (EH Bildu)	135	22,0
Jon Collar (Elkarrekin Podemos)	207	33,8
Eli Murua (PNV-EAJ)	103	16,8
Isaac Palencia (PSE-EE)	99	16,1


Iturria: Aztiker, Erreenteriako herritarren iritzia Udalaren eta bere proiektuen inguruan, 2020.



Erreenteriako Udaleko ordezkari politikoen balorazioa (0-10)

	Aizpea Otaegi		Itziar Ostolaza		Jon Collar		Eli Murua		Isaac Palencia	
	Maiztasuna	Ehunekoa (%)	Maiztasuna	Ehunekoa (%)	Maiztasuna	Ehunekoa (%)	Maiztasuna	Ehunekoa (%)	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Balorazio ona (10-7)	229	67,3	69	51,0	99	47,9	40	38,5	19	19,0
Erdipurdikoa (6-4)	45	13,1	23	16,9	43	20,8	32	31,4	32	32,2
Balorazio txarra (3-0)	0	,0	2	1,3	6	3,1	1	1,1	11	11,2
ED / EE	67	19,6	42	30,8	58	28,1	30	29,1	38	37,6
Guztira	341	100,0	42	30,8	58	28,1	30	29,1	38	37,6
Batez bestekoa (0-10)		7,7		7,5		7,0		6,6		5,2

Iturria: Aztiker, Erreenteriako herritarren iritzia Udalaren eta bere proiektuen inguruan, 2020.




3.3.5. UDAL GOBERNUAREN INGURUKO BALORAZIO OROKORRA

Esadazu, mesedez, nola baloratzen duzun oro har Udalak legegintzaldi honetan egindakoa (2019tik), 0tik 10erako eskala erabiliz

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Balorazio ona (10-7)	387	70,6
Erdipurdiko balorazioa (6-4)	152	27,8
Balorazio txarra (3-0)	9	1,6
Guztira	547	100,0
Batezbesteko (0-10)		7,1

Iturria: Aztiker, Erreenteriako herritarren iritziak Udalaren eta bere proiektuen inguruau, 2020.



3.4. ERRENTERIAKO UDALAREN ETORKIZUNEKO BALIZKO PROIEKTUAK

Erreneriako herritarrei galdetu zaie Udalak eskuartean dituen hainbat proiektuk zein garrantzia maila duten eta zein diren beren ustez lehentasun handiena dutenak etorkizunari begira. Proiektuak bi multzotan banatuta galdetu dira, inkestatu erdiei batzuk galdetuz eta beste erdiei besteak.

Orokorrean, proiektu guztiei eman diente herritarrek garrantzia, 0 eta 10 arteko eskala batean denek atera dute 8,8 eta 6,8 arteko batez bestekoak. Baloratutako hogei proiektuen artean bereziki hiruri eman zaie garrantzia handiena: ‘Bakarrik bizi nahi ez duten adinekoentzako etxebizitza alternatiba eskaintzea’ eta ‘Beharra dutenen gizarte-babesa bermatzea’ izan dira 8,8ko puntuazio media atera dutenak eta ‘Herriko merkataritza eta ostalaritza sustatzea’-k ere 8,7ko batezbestekoa eskuratu du. Bakarrik bizi nahi ez duten adinekoentzako etxebizitza alternatiba eskaintzeari adineko herritarren artean eman zaio garrantzia handiena, hau da, zuzenean eragingo lioken kolektiboak baloratu du gehien, eta berdina gertatu da herriko merkataritza eta ostalaritza sustatzearekin ere, autonomoen artean jaso baitu balorazio altuena.

Laugarren proiektu garrantzitsuenetik hamabosgarrena oso puntuazio antzekoa jaso duten egitasmoak aurkitzen ditugu; 8,3 eta 8,0 arteko batezbestekoarekin. Bertan ikus daitezke ingurumena eta ekologiari lotutako egitasmoak (klima aldaketari aurre egiteko plana garatzea edota ekologikoa eta bertakoa den ekoizpenaren alde egitea, esaterako), bereziki gazteenen artean indarra dutenak. Multzo berean daude, era berean, kulturaren sustapenarekin lotutako proiektuak (kultura, motore ekonomiko izan dadin sustatzea edota Lekuonarekin, kulturaren esparrua zabaltzea), bereziki 50 urtetik gorako herritarren artean balorazio altua jaso dutenak. Eta multzo honetan bertan daude udal ekipamenduekin edota azpiegiturekin lotutako egitasko batzuk ere, hala nola, ‘Auzoetan, udal ekipamenduak zabaltzea’, ‘Ikastetxe publikoen jolas-tokiak estaltzea eta parke publiko gisa erabiltzea’ edota ‘Aparkaleku gehiago eraikitzea’.

Bukatzeko, bost proiektuk 8 puntutik beherako garrantzia batezbestekoa eskuratu dute. Puntuazio altuenetik baxuenera ordenatuta: ‘Arramendi parkea balioan jartzea’ eta ‘Kirol instalazioak hobetzea’-k 7,9ko puntuazioa jaso dute, eta azpimarratzeko da bi kasuetan bereziki garrantzia baxuena gazteen artean jaso dutela. Beherantz jarraituz, 7,6ko puntuazioarekin aurkitzen da ‘Bizikletaz mugitzeko sarea hobetzea’, ondoren ‘Torrekua teknologiaren inguruko polo/erreferente bihurtzea’ 7,1eko balorazioarekin eta garrantzia maila baxuena lortuta, ‘Alde zaharra, artisau-auzoa bihurtzea’ 6,8ko puntuazioarekin. Azken bi proiektu hauek ere gazteen artean jaso dute balorazio ‘kritikoena’.

Atal honekin bukatzeko, Udalak sustatu ditzakeen sei lan eremu ezberdin aipatu zaizkie erreenteriarrei, beraien ustez Udalak landu beharrekoak zein hiru eremu diren esatea eskatuz. Ondorengo eremuak dira, herritarrek lehentasun handiena eman diotenetik hasita: enpresak sustatu eta enplegua sortzea (%81,0), ingurumena zaintza eta gune naturalak balioan jartzeara (%50,8), kultura eta sormena sustatzen jarraitzea, kultur jarduera handiko herri izaten jarraitzea (%40,5), etxebizitzak eraikitza (%39,9), 'ongi konektatutako herria izatea, irisgarria' (%37,1) eta 'kohesionatutako herri berdinazalea izatea, gehien behar dutenen beharrak lehenetsiz' (%37,1). Esan beharra dago, 18 eta 34 urte bitartekoan artean bereziki altuak izan direla bai ingurumena zaintza eta baita kohesionatutako herri berdinazalea izatea. Aldiz, etxebizitzak eraikitzeari garrantzia gehiago eman zaio 50 urtetik gorako herritarren artean. Erreenteriako zonalde ezberdinaren arabera aztertuta, etxebizitzak eraikitza edota ongi konektatutako herri irisgarria izatea bereziki altu baloratu dira Beraun-Kaputxinoak zonaldean eta Galtzaraborda-Iztietan. Enpresak sustatu eta enplegua sortzeari lehentasun handiena ematen diotenak gaur egun lanean edo lan egiteko adinean daudenek ematen diote, garrantzia hau baxuagoa da jubilatuen artean. Bestetik, kultura eta sormena bultzatzeari herritar gazteek eta ikasleek ematen diote lehentasun handiena eta, bukatzeko, ingurumena zaindu eta gune naturalak balioan jartzeari herritar gazteenek (18-34 urte bitartekoak) eta herritar zaharrenek (65 urtetik gorakoak) atxikitzen diote lehentasun handiena.


3.4.1. UDALAK AURRERA ERAMAN DITZAKEEN PROIEKTU EZBERDINEN GARRANTZIA MAILA

Udalak aurrera eraman ditzakeen proiektu ezberdinaren garrantzia maila

		Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Torreku teknologiaren inguruko polo/erreferente bihurtzea	Garrantzia handia (10-7)	169	65,4
	Garrantzia ertaina (6-4)	77	29,8
	Garrantzia txikia (3-0)	12	4,7
	Guztira	259	100,0
	Batezbestekoa (0-10)	7,1	
Herriko merkataritza eta ostalaritza sustatzea	Garrantzia handia (10-7)	293	94,7
	Garrantzia ertaina (6-4)	15	4,9
	Garrantzia txikia (3-0)	1	,5
	Guztira	309	100,0
	Batezbestekoa (0-10)	8,7	
Kultura, motore ekonomiko izan dadin sustatzea	Garrantzia handia (10-7)	272	89,2
	Garrantzia ertaina (6-4)	29	9,6
	Garrantzia txikia (3-0)	4	1,1
	Guztira	305	100,0
	Batezbestekoa (0-10)	8,3	
Beharra dutenen gizarte-babesa bermatzea	Garrantzia handia (10-7)	285	93,4
	Garrantzia ertaina (6-4)	18	5,8
	Garrantzia txikia (3-0)	2	,8
	Guztira	305	100,0
	Batezbestekoa (0-10)	8,8	
Zerga politika progresiboagoa edukitzea (daukazunaren araberako zerga)	Garrantzia handia (10-7)	253	86,5
	Garrantzia ertaina (6-4)	36	12,2
	Garrantzia txikia (3-0)	4	1,4
	Guztira	293	100,0
	Batezbestekoa (0-10)	8,3	
Babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzea	Garrantzia handia (10-7)	243	81,6
	Garrantzia ertaina (6-4)	42	14,1
	Garrantzia txikia (3-0)	13	4,3
	Guztira	298	100,0
	Batezbestekoa (0-10)	8,1	
Aparkaleku gehiago eraikitzea	Garrantzia handia (10-7)	242	80,6
	Garrantzia ertaina (6-4)	50	16,6
	Garrantzia txikia (3-0)	8	2,8
	Guztira	300	100,0
	Batezbestekoa (0-10)	8,2	
Arramendi parkea balioan jartzea	Garrantzia handia (10-7)	221	76,9
	Garrantzia ertaina (6-4)	61	21,2
	Garrantzia txikia (3-0)	6	1,9
	Guztira	287	100,0
	Batezbestekoa (0-10)	7,9	
Kirol instalazioak hobetzea	Garrantzia handia (10-7)	233	79,6
	Garrantzia ertaina (6-4)	52	17,8
	Garrantzia txikia (3-0)	7	2,6
	Guztira	293	100,0
	Batezbestekoa (0-10)	7,9	

Parte hartzeko eta herritarren iritziak entzuteko espazioak edukitzea	Garrantzia handia (10-7)	252	84,9
	Garrantzia ertaina (6-4)	38	12,7
	Garrantzia txikia (3-0)	7	2,4
	Guztira	297	100,0
	Batezbestekoa (0-10)	8,1	
Alde zaharra, artisau-auzoa bihurtzea	Garrantzia handia (10-7)	168	60,8
	Garrantzia ertaina (6-4)	93	33,8
	Garrantzia txikia (3-0)	15	5,4
	Guztira	276	100,0
	Batezbestekoa (0-10)	6,8	
Ekologikoa eta bertakoa den ekoizpenaren alde egitea	Garrantzia handia (10-7)	254	87,1
	Garrantzia ertaina (6-4)	36	12,3
	Garrantzia txikia (3-0)	2	,7
	Guztira	292	100,0
	Batezbestekoa (0-10)	8,1	
Berdintasunaren aldeko politikak eta LGTBIQ+ politikak garatzea	Garrantzia handia (10-7)	246	87,4
	Garrantzia ertaina (6-4)	30	10,7
	Garrantzia txikia (3-0)	5	1,9
	Guztira	281	100,0
	Batezbestekoa (0-10)	8,3	
Bakarrik bizi nahi ez duten adinekoentzako etxebizitza alternatiba eskaintzea	Garrantzia handia (10-7)	275	94,5
	Garrantzia ertaina (6-4)	15	5,2
	Garrantzia txikia (3-0)	1	,3
	Guztira	291	100,0
	Batezbestekoa (0-10)	8,8	
Auzoetara irisgarritasuna eta auzoen arteko lotura hobetzea	Garrantzia handia (10-7)	247	86,0
	Garrantzia ertaina (6-4)	35	12,2
	Garrantzia txikia (3-0)	5	1,7
	Guztira	287	100,0
	Batezbestekoa (0-10)	8,2	
Bizikletaz mugitzeko sarea hobetzea	Garrantzia handia (10-7)	218	76,5
	Garrantzia ertaina (6-4)	53	18,6
	Garrantzia txikia (3-0)	14	4,9
	Guztira	285	100,0
	Batezbestekoa (0-10)	7,6	
Ikastetxe publikoen jolas-tokiak estaltzea eta parke publiko gisa erabiltzea	Garrantzia handia (10-7)	239	82,7
	Garrantzia ertaina (6-4)	44	15,1
	Garrantzia txikia (3-0)	6	2,2
	Guztira	288	100,0
	Batezbestekoa (0-10)	8,1	
Klima aldaketari aurre egiteko plana garatzea	Garrantzia handia (10-7)	237	85,4
	Garrantzia ertaina (6-4)	35	12,6
	Garrantzia txikia (3-0)	6	2,0
	Guztira	277	100,0
	Batezbestekoa (0-10)	8,2	
Lekuonarekin, kulturaren esparrua zabaltzea	Garrantzia handia (10-7)	226	82,2
	Garrantzia ertaina (6-4)	42	15,3
	Garrantzia txikia (3-0)	7	2,5
	Guztira	275	100,0
	Batezbestekoa (0-10)	8,0	
Auzoetan, udal ekipamenduak zabaltzea	Garrantzia handia (10-7)	239	86,2
	Garrantzia ertaina (6-4)	35	12,6
	Garrantzia txikia (3-0)	3	1,2
	Guztira	278	100,0
	Batezbestekoa (0-10)	8,2	

Iturria: Aztiker, Errenteriako herritarren iritziak Udalaren eta bere proiektuen inguruan, 2020.




3.4.2. UDALAREN LEHENTASUNEZKO EREMUAK ETORKIZUNEAN

Zure ustetan, Udalak zein eremuri eman behar dio lehentasun handiena ondorengo urteetan? Aukeratu SEITIK HIRU

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Enpresak sustatu eta enplegua sortzea	497	81,0
Ingurumena zaintza eta gune naturalak balioan jartzea	312	50,8
Kultura eta sormena sustatzen jarraitza, kultur jarduera handiko herri izaten jarraitzeko	248	40,5
Etxebizitzak eraikitza	245	39,9
Ongi konektatutako herria izatea, irisgarria	227	37,1
Kohesionatutako herri berdinzailea izatea, gehien behar dutenen beharrak lehenetsiz	227	37,1
Guztira	613	100,0

Iturria: Aztiker, Erreenteriako herritarren iritziak Udalaren eta bere proiektuen inguruan, 2020.



3.5. KORONABIRUSA ETA KONFINAMENTUAREN INGURUKO BIZIPENAK

Martxoan hasitako konfinamendu garaia etxeen nola bizi izan duten galdetu zaie inkestatuei. Zehazki, lau aspektu ezberdinen arabera jakin nahi izan da: arlo afektibo/emozionala, arlo ekonomikoa, arlo fisikoa eta bizi den etxebizitzaren erosotasuna/baliabideak.

Arlo emozionalari dagokionez, inkestatuen hiru laurdenak (%75,8) etxeen oso ondo edo nahiko ondo moldatu direla adierazi du eta gainerako %24,2k nahiko edo oso gaizki. Bestetik, arlo ekonomikoan oso ondo edo nahiko ondo moldatu dira %84,6 eta nahiko edo oso gaizki %15,4. Hirugarren, arlo fisikoari dagokionean, arlo emozionalaren antzera izan dira oso ondo edo nahiko ondo moldatu direnak (%76,2) eta herritarren bostetik bik baino gehiagok (%23,8) adierazi du nahiko edo oso gaizki pasa dutela. Bukatzeko, etxeko erosotasuna eta bertan dituen baliabideen alorrean, gehiengoa oso ondo edo ondo moldatu da (%94,3).

Aldagai ezberdinekin gurutzatu ezkerro, argi ikus daiteke konfinamendu garaia arlo emozionalean okerren pasa dutenak gehiago izan direla emakumezkoak, bakarrik bizi direnak edota guraso bakarreko etxebizitzak (monoparentalak). Kolektibo hauetan besteetan baino altuagoa izan da konfinamendua gaizki pasa dutela esan dutenak. Arlo ekonomikoan, ostera, diru sarrera gutxien dituztenek pasa dute egoera latzena, langabeziaren daudenak ia herenak (%31,6) gaizki pasa duela esan du eta lan jardun murriztuan daudenak %34,5ak. Adin tarteari erreparatuz gero, 35-49 urte arteko erreenteriarak izan dira ekonomikoki okerren pasa dutela adierazi dutenak.

Horrez gain, Erreenteriako Udalak koronabirusa dela eta hartutako hainbat neurri aipatu zaizkie inkestatuei, ea neurri hauek ezagutzen dituzten jakiteko. Herritarrek gehien ezagutzen duten neurria 'Adinekoei banan bana etxera deitu eta laguntza eskaintzea' izan da (%81,7) eta ondoren daude 'Kontsumo bonoak' (%80,0), 'Ikastetxeekin elkarlanean, ordenagailuak eta interneterako konexioa bermatzea haurrei' (%70,2), 'Genero indarkeriari aurre egiteko zerbitzua' (%56,2), 'Etxerik gabekoentzat Belabaratz aterpea' (%54,5), 'Jarduera ekonomikoari laguntzeko 1800€ arteko diru-laguntzak' (%45,3) eta 'Haurrentzako zaintzaileak kontratatzeko diru laguntzak' (%22,8). Azpimarragarria da, Udalak martxan jarritako neurri hauek ezagutza maila ezberdina izan dutela herritarren artean. Orokorean ezagutza maila altuagoa izan da emakumezkoen artean gizonezkoen artean baino eta, bestetik, euskaraz ondo moldatzen ez diren herritarren artean ezagutza txikiagoa da. Bukatzeko, zonaldeen arabera aztertuta, Erdigunea-Olibet-Etxe Berriak inguruan bizi direnek neurrien eta laguntzen inguruko ezagutza altuagoa erakutsi dute.

Udalak hartutako neurri hauekin zer nolako harremana izan duten galdetuta, herritarren hamarretik lauk (%40,5) neurri edo laguntzaren bat jaso dutela adierazi dute inkestan. Erabilitako laguntza edo neurrien artean, gehien aipatu dena kontsumo bonoen erabilera izan eta bigarren lekuan adineko bezala etxeen deia jasotzea laguntza eskainiz. Bestetik, herritarren beste %12,1ek adierazi du bera ez dela izan erabiltzailea baina inguruan badituela erabiltzaile izan direnak. Bestalde, erreenteriarren %3,0k adierazi du boluntario bezala jardun izan duela Udalaren neurri hauek aurrera eramaten laguntzeko (adineko herritarrei etxera deiak egiten edo beharrezko erosketak eramaten eta abar). Eta bukatzen, gainerako herritarren ia erdiak (%45,9) ez du inolako harremanik izan Udalaren neurri edo laguntza hauekin. Kasu honetan ere, neurri eta laguntzen ezagutzarekin gertatu bezala, profil jakin bateko herritarrek izan dira gehien erabili dituztenak; emakumezkoek gehiago erabili dituzte gizonezkoek baino, euskaraz dakitenek gehiago erdaldunek baino eta Erdialdean bizi direnek auzoetako herritarrek baino gehiago.


Atal honekin amaitzeko, herritarrei galdeitu zaie nola baloratzen duten Udalak pandemiaren aurrean egindako kudeaketa. Erreenteriarren ia hamarretik zortzik (%78,6) puntuazio altua ematen diote kudeaketarik, 10 eta 7 arteko nota. Gauzak horrela, batez beste herritarrek eman duten puntuazioa 7,5ekoa izan da. Profil ezberdinetako herritarren iritzia konparatuta, ez da ezberdintasun azpimarragarriek ikusten.

3.5.1. KONFINAMENTU GARAIAN IZANDAKO EGOERA

Arlo afektibo / emozionala (ingurukoen babesia, bakardadea, etxekideekin harreman...)

	Maiztasuna	Ehuneko (%)
Oso ondo	106	17,4
Nahiko ondo	357	58,4
Nahiko gaizki	117	19,1
Oso gaizki	31	5,1
Guztira	612	100,0


Iturria: Aztiker, Erreenteriako herritarren iritziak Udalaren eta bere proiektuen inguruan, 2020.



Arlo ekonomikoa (etxeeko ekonomia, lana...)

	Maiztasuna	Ehuneko (%)
Oso ondo	79	12,9
Nahiko ondo	439	71,7
Nahiko gaizki	78	12,7
Oso gaizki	17	2,7
Guztira	612	100,0


Iturria: Aztiker, Erreenteriako herritarren iritziak Udalaren eta bere proiektuen inguruan, 2020.



Ongizate fisikoa (egoera fisikoa, sedentarismoa...)

	Maiztasuna	Ehuneko (%)
Oso ondo	81	13,3
Nahiko ondo	384	62,9
Nahiko gaizki	121	19,8
Oso gaizki	25	4,0
Guztira	612	100,0


Iturria: Aztiker, Erreenteriako herritarren iritziak Udalaren eta bere proiektuen inguruan, 2020.



Etxeko erosotasuna eta bertan ongi egoteko baliabideak

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Oso ondo	170	27,8
Nahiko ondo	400	65,6
Nahiko gaizki	37	6,0
Oso gaizki	4	,6
Guztira	611	100,0

Iturria: Aztiker, Erreenteriako herritarren iritziak Udalaren eta bere proiektuen inguruau, 2020.




3.5.2. KORONABIRUSA DELA ETA, UDALAK HARTUTAKO NEURRIEN EZAGUTZA ETA PROPOSAMENAK

Erreneriako Udalak koronabirusa dela eta hartutako neurrien ezagutza

	Maiztasuna	Ehunekoia (%)
Adinekoei banan bana etxera deitu eta laguntza eskaintza	481	81,7
Kontsumo bonoak atera non 20 euroko gastuagatik 10€ ematen zituen	471	80,0
Ikastetxeekin elkarlanean, ordenagailuak eta interneterako konexioa bermatzea haurrei	414	70,2
Genero indarkeriari aurre egiteko zerbitzua	331	56,2
Etxerik gabekoentzat Belabaratz aterpea	321	54,5
Jarduera ekonomikoari laguntzeko 1800€ arteko diru-laguntzak	267	45,3
Haurrentzako zaintzaileak kontratatzeko diru laguntzak	134	22,8

Iturria: Aztiker, Erreneriako herritarren iritziak Udalaren eta bere proiektuen inguruan, 2020.



Aipatutako neurriei buruzko komentariorik baldin baduzu edo beste neurriren bat faltan somatu baduzu, hemen aipatu (Irekia)

	Maiztasuna
- 'Toque de queda'-k batzuetan ez dauka zentzurik, trenean eta busean denak pillan goazelako. Logika galtzen du.	1
- A nuestra casa han llamado para ofrecer ayuda pero nos arreglamos.	1
- A nuestra casa no ha llamado nadie para ofrecer ayuda a pesar de vivir una persona de 85 años.	1
- Ansietatearekin zegoen jendeak baimenen bat beharko luke irteteko justifikatuz gero.	1
- Atal honetan mugatua da Udalak egin dezakeena, gehiago eskatu behar zaie herritarrei egoera ez okertzeko. Adibidez pandemiaren lehenengo olatuan herritarragoak erantzun hobea go eman zuen bigarrengoa honetan baino.	1
- Ayuda para los vagabundos, están en la calle sin mascarilla. No sabe si es competencia del ayuntamiento o gobierno vasco. A ciertas horas quitar el uso obligatorio de la mascarilla.	1
- Ayudar a la hostelería y a los desempleados.	1
- Ayudar a la hostelería.	1
- Bonoak oso ondo eterri dira komertzioetarako.	1
- Bonos de consumo en nuestro buzón no ha habido y he oído que los han robado de los buzones.	1
- Bonos, no conoci la infomación, dónde tenía que gastar, ya no había bonos.	1
- Con la pandemia el cierre de los bares no es problema de los empresarios si no de las personas que han sido incivicas.	1

- Controlar el cumplimiento de las normas anticovid.	1
- Covid19 delakoak, oso ustekabean harrapatu gaitu denok. Nik uste dut zer datorkigun jakin ezean, neurri asko ezin direla hartu. Eguraldiarekin konparatu ezkero, euria datorrelako aterkia erabilzeko esan, eta gero olatuak etxea tapatu digu. Datorrenari ahal den bezela aurre egin beharko.	1
- Creo que lo han planteado y gestionado bien.	1
- Deberían anunciar los casos de Rentería de coronavirus positivos.	1
- Deitu zuten adinekoen zaintzarako eta oso ongi iruditu zaigu.	1
- Dena hobetu daiteke, baina egindakoa ongi iruditzen zait.	1
- Diru laguntzak bermatu eta gehitu.	1
- El Ayuntamiento muy bien pero las personas son incivicas y no respetan los horarios.	1
- El Ayuntamiento y las personas del pueblo se portaron muy bien.	1
- El tema de los bonos no se informó lo suficiente y mucha gente pensó que era propaganda y lo tiró.	1
- Emakumeen tratu txarren aurkako zerbitzua indartzea oso ondo iruditzen zait.	1
- Empezar el confinamiento antes.	1
- En el tema de los bonos se debería informar más.	1
- En época de la pandemia hay más gente viviendo en la calle y además sin mascarilla.	1
- En general encuentro incoherencia entre lo que se dice y lo que se hace.	1
- En mi barrio hubo gente que se aprovechó a cuenta de los perros para poder salir y debería haber más control por parte de la policía municipal.	1
- Entzun nuen laguntza ekonomikoak eman zituztela ostalarientzat janaria etxera eramateko, baina ez dut uste nahikoa denik jendeak orain ez dituelako eskaera hoiek egingo.	1
- Ez da Udalaren ardura baina osasun sailetara iristeko dauden zailtasunekin erabat haserre nago, beraz, Udalak bultzatu behar luke konponketa.	1
- Ez zait ondo iruditzen tabernak ixtea, ondo zauden.	1
- Ezin dutenei laguntza ekonomikoaz gain, beste laguntza batzuk eman beharko litzaizkie.	1
- Facilitar mascarillas. Propongo que saque el Ayuntamiento mascarillas de tela, y reciclables.	1
- Falta de control en la calle.	1
- Falta de control por parte de los municipales para controlar al personal con esto del covid.	1
- Falta de limpieza en la Ermita de la Magdalena.	1
- Falta información.	1
- Fomentar actos culturales en el pueblo cumpliendo las medidas. El sector de la hostelería está cerrada por culpa de la ciudadanía y porque la policía no ha vigilado el cumplimiento de las normas.	1
- Galtzaraborda en la calle del parque, donde los garajes, se juntan muchos jóvenes, sin mascarilla y no se toman las debidas medidas, también en Gaztañio.	1
- Gardentasun gehiago, korobisuna Gabierrotako zaharren egoitzan.	1
- Gauden egoera gaudela, bere esku dituen ahalmenekin eta pasatzen zaion diru murrizketarekin... Udal nahikoa eta ahal duen guztia egiten ari da.	1
- Gazte jendea musuko gabe ibili da eta udaltzainek ez dute behar besteko neurririk hartu.	1
- Gratamente sorprendida, sobre todo en el servicio de las llamadas a personas mayores.	1
- Gure etxera bonoak ez ziren iritsi. Aterpetxea irekitzea ez da dagoen jendearentzat nahikoa.	1
- Haber facilitado dos mascarillas al principio de la pandemia, y mayor vigilancia del cumplimiento de las normas en los bares.	1
- Han hecho lo correcto.	1
- Harritu nau helduen deiekin (+65) hain berandu hastea.	1
- Haurrek jolasten duten parkeetan gel dispentsadoreak jarriko nituzke.	1
- Hay mucha gente que va sin mascarilla y la policía municipal no toma medidas suficientes.	1
- He recibido una llamada pero no he utilizado la ayuda.	1
- Hemos echado en falta el servicio de limpieza con la manguera (la espuma blanca).	1
- Isun gutxi jarri dituzte.	1

- Jende batzuri sekulako beldurra ematen die eta beste batzuek ez diote inolako garrantziarik ematen eta Udalak hori saihesteko neurriak hartzea ez lego ke gaizki, iritzi orokor bat sortzeko herrian.	1
- Kalera atera eta ez dago komunikik.	1
- Kontrol gehiago hainbat gunetan. Arramendin talde handiak maskarilla gabe eta distantziarik gabe eta kontuan hartu beharko lirateke hoiak.	1
- La falta de responsabilidad de los ciudadanos.	1
- La gente no respeta las medidas puestas por el Ayuntamiento y el Gobierno: uso de mascarillas...	1
- La vigilancia y hacer cumplir las normas sin poner multas.	1
- La vigilancia y hacer cumplir las normas.	1
- Laguntza ekonomiko gehiago, batez ere autonomoentzat.	1
- Las ayudas para hostelería podían ser más y hay otros aspectos que también necesitan ayudas.	1
- Las bolsas de orgánico me trajeron a casa durante el confinamiento.	1
- Los bonos al ser anónimos robaron de los buzones.	1
- Los municipales no han hecho muy bien su trabajo de control.	1
- Más ayudas a personas que no tenían suficientes recursos.	1
- Más bonos para reactivar la economía.	1
- Más control, en la desescalada hubo más.	1
- Más estrictos, no se ven los municipales.	1
- Más información a los ciudadanos.	1
- Más limpieza.	1
- Más presencia policial, ahora también no se cumplen las medidas por parte de los adolescentes. Medidas imaginativas que funcionen con los adolescentes.	1
- Más vigilancia con respecto a la ciudadanía, que hubiera evitado el cierre de establecimientos y que la responsabilidad de esta vigilancia no recaiga en los dueños del establecimiento sino en la Policía Local.	1
- Más vigilancia en las terrazas con la mascarilla.	1
- Más vigilancia en los parques, porque consumen cerveza en la calle.	1
- Más vigilancia para el cumplimiento de las normas con Policía Local.	1
- Más vigilancia para el cumplimiento de las normas.	1
- Más vigilancia, abusos y sigue habiendo, grupos de 10 personas.	1
- Más vigilancia.	2
- Mayor control.	1
- Mayor vigilancia en la calle del comportamiento de los ciudadanos.	1
- Me han llamado, pero no he necesitado ayuda.	1
- Me han parecido muy bien las ayudas. Sobre todo llamar a las personas mayores.	1
- Me parece muy bien que ayuden a las personas mayores con las compras, pero eso se debería hacer continuamente, no solo durante la pandemia.	1
- Mucho marketing (mucho publicitar medidas a la ciudadanía, pero que resultan insuficientes y que no tienen en cuenta otros sectores económicos).	1
- Nahiko ondo egin du Udalak, ahal izan duenarekin.	1
